



IKER
GAZTE
NAZIOARTEKO
IKERKETA EUSKARAZ

III. IKERGAZTE NAZIOARTEKO IKERKETA EUSKARAZ

2019ko maiatzaren 27, 28 eta 29
Baiona, Euskal Herria

ANTOLATZAILEA:
Udako Euskal Unibertsitatea (UEU)

GIZARTE ZIENTZIAK ETA ZUZENBIDEA

**Iparra galdu gabe! Euskal alderdi-
sistema ez da espainiar estatuko
azpi-sistema elektoral bat**

*Haritz Garmendia Iturria eta
Eguzki Urteaga*

44-49 or.

<https://dx.doi.org/10.26876/ikergazte.iii.02.05>



Iparra galdu gabe! Euskal alderdi-sistema ez da espainiar estatuko azpi-sistema elektoral bat

Garmendia Iturria, Haritz eta Urteaga, Eguzki
Euskal Herriko Unibertsitatea
hgarmendia003@ehu.eus

Laburpena

Lan hau euskararen eta boto abertzalearen arteko loturaren inguruan egiten ari garen doktore-tesiaren fruitua da. Ikerketa honetan, zehazki, euskal alderdi-sistemaren gaineko berrikusketa bat proposatzen da. Akademian hegemoniko den korrante modernistak euskal alderdi-sistema estatu beregaina duten espainiar eta frantziar nazionalismoen betaurrekoetatik irakurtzera behartzen gaitu. Ikuspegi horretatik, euskal alderdi-sistema estatu bateko azpi-sistema bereizi moduan aztertzeraz kondanatuta gaude. Errealitatean, ordea, bi estatutan ditugu euskal alderdi nazionalistak. Lan honetan, interpretazio-esparru bat proposatzen da alderdi-sistemak zedarritzeko irizpideak euskal nazioan ardaztu eta euskal alderdiak bere osotasunean aztertzen dituen euskal alderdi-sistema jasotzeko.

Hitz gakoak: nazioa, estatua, alderdi-sistema, euskal kasua.

Abstract

This article is the result of a PhD thesis regarding the link between the Basque language and the Basque Nationalist Vote which we have been working on. In this research, a review of the Basque political party system is specifically proposed. The modernist current that is hegemonic in academia obliges us to look into the Basque political party system from the perspective of nationalisms that have a political state of their own. As a result, we are obliged to analyze the Basque party system as a specialized sub-system within a nation-state. In reality, however, the Basque nationalist parties function astraddle of two different nation states. An interpretative framework for the Basque political party system is proposed which focuses on the criteria defining the political party systems and which analyzes Basque political parties as a whole.

Keywords: nation, state, party system, Basque case

1. Sarrera eta motibazioa

Ikertzaile euskaldun garen neurrian, UEUko sortzaileek zuten motibazio bera dugu: sorkuntza intelektuala euskaraz eta euskal mundutik abiatuta egitea. Abiapuntu horrek erabat baldintzatu du soziologia elektoralaren arloan egin dugun ikerketa honen noranzkoa, baita hura lantzean hobetsi dugun perspektiba ere.

IkerGazte kongresua euskal arnasgune bat da erdal inteligentzia hegemoniko duen akademian. Askatasun espazio hori aprobetxatuz, euskal alderdi-sistema interpretatzeko esparru berri baten zirriborroa proposatzen dugu. Proposamen horrek honako hau du xede: CISek euskal alderdi-sistema interpretatzerakoan aldeztu duen irakurketari alternatiba bat ematea.

Lan honek hauxe du oinarria: Euskal Herriko Unibertsitatean ikerlari moduan egiten ari garen *Euskararen eta boto abertzalearen arteko lotura* doktore-tesia. Ondorengo ataletan azaltzen duguna, beraz, orain arte doktore-tesian erdietsi ditugun ondorioen aurrerapen bat da.

2. Arloko egoera eta ikerketaren helburuak

Gure doktore-tesiak euskararen eta boto abertzalearen arteko lotura aztertzea du helburu, eta, beraz, eskuartean dugun ikerketa hau soziologia elektoralaren arloan kokatuta dago. Ikerketa egiteko, metodologia mistoa erabili dugu. Aurrena, kuantifikatu dugu bi aldagai horien artean erlazio lineal bat dagoela, eta, erlazioa konfirmatu eta gero (Garmendia, 2015; Garmendia et. al., 2017), saiatu gara ulertzen boto abertzalea ematen duten euskal hiztunek nolako zentzua ematen dioten beren portaerari. Azken batean, honako hau behatu nahi dugu: hautesle batek euskara erabiltzeak, ezagutzeak, haren aldeko jarrera izateak zer-nolako eragina duen boto abertzalea ematean. Gure kasuan, euskararen eta boto abertzalearen arteko lotura interpretatzeko, *clivageen* teorian oinarritu gara (Lipset et. al., 1967).

1. taula. *Clivageen* teoria eta haren aplikazioa.

GERTAKARI HISTORIKOA	ERAGINDAKO GATAZKA	CLIVAGEA
Erreforma protestantea	Katolikoak vs Protestanteak	Lerrokatze erlijiosoa
Nazio-estatuaren eraikuntza	Estatuaren menpekoak vs Elizaren menpekoak	Jatorriari dagokion lerrokatzea -(1)NAZIONALA -(2)LURRALDEA -(3)EREMUA
	Komunitate kulturalak vs besteak (1)	
	Zentro menderatzailea vs periferia (2)	
Iraultza industrialak	Landaguneko lurjabeak vs hiriguneko industrialariak (3)	Klase sozialari dagokion lerrokatzea
	Burgesia vs langilea	

Iturria: Anduiza eta Bosch (2004, p. 149), guk moldatua.

Teoria horren arabera, Europako mendebaldeko alderdi-sistemen muinean, honako hauek eragindako gizarte-hausturak daude: erreforma protestanteak, iraultza industrialak eta nazio-estatuaren eraikuntzak eragindakoak, hain zuzen. Haustura horiek gizartean interes ezberdineko taldeak trinkotzen laguntzen dute (talde etnikoak, langileak, nekazariak, erlijiosoak etab.). Hala, alderdi politikoak talde horien interesak espazio politikoan ordezkatzeko helburu duten organizazioak dira. Horrenbestez, gizartean dauden talde-interes nagusiek alderdi-sistemaren estruktura baldintzatzeko gaitasuna dute. Ardatz horiei *clivage* esaten zaie eta hauteskundeetan gertatzen diren lerrokatze elektoralak ulertzeko kategoria teoriko nagusiak dira.

Hori guztia irakurri genuenean, honako galdera hau egin genion geure buruari: zein dira, euskal kasuan, alderdi-sistema egituratzen duten *clivage* nagusiak? Eta nola interpretatu behar da euskararen eta boto abertzalearen arteko lotura?

CISen inguruan lanean dabiltzan ikertzaileek bi *clivage* aipatzen dituzte euskal alderdi-sistema aztertzerakoan: 1) *clivage* soziala eta 2) zentro-periferia gatazkak eragindako jatorriaren inguruko *clivagea*. Ikerketa horiek lurralde-*clivagearen* parametroak erabiliz azaltzen dute euskararen eta boto abertzalearen arteko lotura (ik. Pallarés, 2014; Llera, 2016).

Alabaina, doktore-tesiko elkarrizketak egitean ikusi dugu badagoela desfase bat elkarrizketatuek euskal alderdi-sistema irudikatzean erabiltzen dituzten kategorien eta aipatutako autoreek proposatzen duten eskemaren artean. Arazo horri irtenbide bat bilatzeko asmoz, jarraian, esparru teoriko bat proposatzen dugu, zeina bozka abertzale ematen duten euskal hiztunek euskararen eta boto abertzalearen arteko lotura azaltzean irudikatutako alderdi-sistemarekin bat baitator.

3. Ikerketaren muina


3.1. Irizpide zaharra: CIS erakundea

CISek proposatutako esparruak gure ikerketarako balio ez izatearen arrazoia nazio kontzeptuaren eztabaidan mamitzen da. CIS erakundeak nazio modernoaren ideia hobesten du, eta, ondorioz, argitaratzen dituen lanetan, Estatutik abiatuta ezartzen ditu ikerketa-objektua zedarrizteko irizpideak, ikerketa elektoralak egitean. Horrek bi ondorio zuzen ditu.

- 1) Perspektiba horretatik, gehienez ere, Hego Euskal Herriko alderdi-sistema soilik aztertu ahal izatea. Izan ere, Ipar Euskal Herriko alderdi-sistema Frantziar Estatuaren mugetan dago.
- 2) Alderdiak kategorizatzerakoan, alderdi nazionalista kategoria alderdi “periferiko” jakin batzuei soilik esleitzea.

Interpretazio-esparru horren arabera, espainiar alderdiak ez dira alderdi nazionalistak, alderdi estatalistak baizik. Hori gutxi ez eta, periferiako lurraldetan ordezkariak duten baina espainiar estatua zalantzan jartzen ez duten alderdiak alderdi erregional/autonomistatzat kategorizatzen ditu.

1. irudia. CIS erakundeak euskal alderdi-sistema kategorizatze erabiltzen dituen irizpideak.



Iturria: guk egina

Euskobarometro taldeko zenbait kidek (Retortillo et. al., 2016: 175-180), interpretazio-esparru hori erreferentziaz harturik, bitan banatzen dituzte euskal alderdi-sistemako alderdiak: alderdi autonomistak (PSE-EE, PP, Podemos...) eta alderdi nazionalistak (EAJ eta EH Bildu). Gure ustez, ordea, banaketa hori okerra da eta ez du balio errealitatea azaltzeko. Izan ere, kontraesan bat al da alderdi bat nazionalista eta aldi berean autonomista izatea? Ez, noski. EAJ ez al da alderdi nazionalista eta autonomista? PP ez al da alderdi nazionalista espainiarra? Gauza bat da alderdiaren jatorrizko nazioa, eta bestea, alderdi horrek hobesten duen estatu-antolaketa. Alde horretatik, bi aldagaiak elkarren osagarri izan daitezke.

Nahasmen teoriko hori gainditzeko, oso baliagarri suertatu zaigu Joxe Azurmendik (2017) proposatzen duen nazioaren definizio klasikoa. Izan ere, euskal alderdi-sistema nazio klasikoaren irizpideen arabera interpretatzen saiatzen da, doktore-tesian parte hartu duten elkarrizketatu gehienek egiten duten moduan. Hori egitean, estatuaren mugak gainditu eta ikuspegi berri bat zabaltzen da. Gure kasuan, Ibai Iztuetak (2016) egiten duen bereizketa erabiliko dugu kontzeptuak argitzeko. Bereizketa horren arabera, gauza bat da *herria/nazioa* eta bestea, *gizartea*. Naziotasuna aukeratu egiten da; hiritartasuna, inposatu.

2. taula. Nazio zibiko/etniko dikotomia gainditzeko proposatzen den nazioaren definizioa.

Gizartea (hiritarra)	Hiritarrek bizigune dituzten elkarbizitza eta harreman espazioak dira. Eredu administratiboek ezaugarrituko lituzkete, eta administrazio-unitate esanguratsuen estatua litzateke. Hala, gizarte kontzeptuaren barruan, hizkuntzarekiko harremana norbanakoaren dimentsiotik, norbanakoen eskubide eta betebeharren auzitik, ulertzeko eskatzen da, hain zuzen ere, hurbilketa arrazionala eta hizkuntzen alderdi instrumentala azpimarratuz.
Herria/Nazioa (nazio kidea)	Beren burua auto-adskripzio beraren inguruan definitzen duten herritarrek osaturiko gizatalde gisa defini daitezke. Hala, herri/nazio kontzeptuaren barruan, hizkuntzarekiko harremana talde-nortasunaren dimentsiotik ulertzeko eskatzen da, lotura horren izaera irrazionala eta hizkuntzen alderdi sinbolikoa azpimarratuz.

Iturria: Iztueta (2016).

Nazio gutxitu izateak dituen ondorioak ikusarazteko, ezinbestekoa da bereizketa hori mahai gainean jartzea. Euskal nazioaren kasuan, alderdi-sistema hiritartasunaren ikuspegitik landuta, euskal alderdi-sistema erdibitu, eta behartuta gaude euskal alderdiak Espainiar/Frantziar nazioaren logikatik irakurtzera.

Alderdi-sistema naziotasunetik irakurriz gero, berriz, estatuaren mugak gainditu, eta euskal alderdi-sistema bere osotasunean ulertzeko aukera dugu. Bide malkartsua da azken hori. Izan ere, *clivage*en teoria parametro berrien arabera berregokitu behar da.

Hori esanda, bidegurutze bat dugu. Bi hautu egin behar ditugu: batetik, zer naziotatik aztertu nahi dugu alderdi-sistema? Eta, bestetik, zer ikuspegitatik, naziotasunetik ala hiritartasunetik? Honako hau da gure hautua: zailtasunak zailtasun, euskal alderdi-sistema euskal naziotik eta naziotasunean oinarrituta irakurtzea. Azken batean, hura baita euskararen eta boto abertzalearen arteko lotura ulertzeko aukera egokiena.

3.2. Euskal nazio klasikoa eta irizpide berriak

Ikerketa sozialak egiterakoan, ikerketa-objektua zedarritzeko irizpideak estatutik abiatuta ezartzea da normalena. Alabaina, ikerketa-objektua zedarritzeko irizpideak nazio gutxituetatik abiatuta zedarritzea ez da bekatua. Are gehiago, zilegi bezain beharrezkoa da (Azurmendi, 2018: 77). Gure kasuan, euskal nazioan oinarrituko ditugu alderdi-sistema zedarritzeko irizpideak.

3. taula. Euskal alderdi-sistema interpretatzeko irizpide berriak.

	IRIZPIDEAK	ALDERDI SISTEMAK AZTERTZEAN ERABILI DITUGUN IRIZPIDEAK
1	NAZIOAK (KOM)UNITATEA OSATZEN DU	<p>AURRENEKO IRIZPIDEA: Zer naziotako alderdi/koalizioak daude euskal lurraldean?</p> <ul style="list-style-type: none"> • Frantziar naziotik sortuak • Espainiar naziotik sortuak • Euskal naziotik sortuak <p>BIGARREN IRIZPIDEA: Nolako harremana du nazio bakoitzak estatuarekin?</p> <ul style="list-style-type: none"> ❖ Estatu beregaina duten nazioak: <ul style="list-style-type: none"> • Nazio frantsesa • Nazio espainiarra ❖ Estatu beregainik ez duten nazioak <ul style="list-style-type: none"> • Euskal nazioa
2	DIBISIOAK (KOM)UNITATE NAZIONALAREN BAITAN ULERTU BEHAR DIRA	<p>HIRUGARREN IRIZPIDEA: Nazio bakoitzean, zenbat dibisiok lortu dute alderdi/koalizioak egituratzea?</p> <ul style="list-style-type: none"> ❖ Estatu beregaina duten nazioak <ul style="list-style-type: none"> • Frantziako nazioaren kasuan: (ikerketa beste baterako) • Espainiar nazioaren kasuan: 2 dibisio: <ul style="list-style-type: none"> ➢ Zentroaren interesa vs periferiaren interesa ➢ Burgesiaren interesa vs langileen interesa ❖ Estatu beregainik ez duten nazioak <ul style="list-style-type: none"> • Euskal nazioaren kasuan 2 dibisio: <ul style="list-style-type: none"> ➢ Nazionala eta erregionala ➢ Burgesiaren interesa vs langileen interesa

Iturria: Guk egina.

Ikuspegi berri horretatik, lehenik, euskal nazioa ordezkatzeko duten euskal alderdien esparrua definitu behar da. Hala, ikusten da euskal alderdiak Euskal Herriko 7 lurraldetara hedatzen direla. Irizpideak zedarritzeko unitatea nazioa den neurrian, galdera bat egin behar diogu gure buruari: euskal lurralde horretan hauteskundeetan parte hartzen duten alderdiek zein nazio ordezkatzeko dituzte? Euskal alderdi-sistemaren kasuan, ikusten da hiru naziotako alderdiak daudela: 1) euskal nazioak, 2) frantziarrak eta 3) espainiarrak.

Nazio ezberdinetako alderdiak identifikatu ostean, bigarren fasera igarotzen gara. Alde horretatik, ezinbestekoa da bereizketa bat egitea. Honatx bigarren galdera: nazio horietatik, zeinek dute estatua? Izan ere, espainiar eta frantziar nazioak ordezkatzeko dituzten alderdien kasuan, naziotasuna eta hiritartasuna bat dira, eta, beraz, identitate nazionalak ez die buruhausterik sortuko. Are gehiago, beren identitate nazionala “ikusezin” bihurtzen da. Aldiz, naziotasuna eta hiritartasuna bera ez diren kasuetan, mobilizazioak hiritartasun propioa aldarrikatzera lerratuko dira. Horregatik da begi-bistakoa beren izaera nazionala. Edonola ere, alderdi politiko ez-nazionalistarik ez dago. Guztiek dute jatorri partikular bat.

Alderdi guztiak jatorrizko nazioaren arabera hiru multzotan sailkatu eta gero, *clivage*en teoria egokitua aplikatuko dugu. Teoria hori aplikatzerakoan, ordea, gogoratu jada dibisioak ulertzeko unitatea ez dela lurraldea edo estatua, komunitate nazionala baizik. Horregatik, naziotik abiatuta ulertu behar dira aurrez aipatutako dibisioak.

Biraketa kopernikar hori egindakoan, nazioa bihurtzen da euskal alderdien sorrera azaltzeko erreferentzia-esparru, eta, ondorioz, zentro-periferia dibisioak CISen lanean zuen funtzio erabakigarria galtzen du estatu gabeko nazioak ordezkatzeko dituzten alderdien sorrera azaltzeko. Izan ere, nola da posible Sortu/EA/EAJ alderdiak alderdi periferikoak izatea, baldin eta alderdi horien zentroa ez bada espainiar nazioan aurkitzen? Egia da hiritar dimentsiotik begiratuta espainiar/frantziar estatuek araututako hauteskundeetan parte hartzen dutela. Edonola ere, euskal nazioaren interesak ordezkatzeko dituzten alderdi nazionalak dira. Euskal lurralde nazional guztian ordezkariak lortzea xede duten proiektu politikoak dituztelako deitu diegu alderdi nazionalak. Azken batean, PP, PSOE, Podemos edo C's alderdien baliokideak dira. Bien artean, desberdintasun bakarra dago: alderdi horiek ordezkatzeko duten espainiar nazioak estatu espainiarraren monopolioa du; euskal nazioak, aldiz, ez.

Azkenik, zer gertatzen da EH Bildu, EH Bai edota Geroa Bairekin? Alderdi/koalizio horiek, euskal nazioan dute jatorria; alabaina, beren esparru politikoa ez da nazionala. Euskal lurralde jakin batzuetara mugatzen dira. Horregatik, euskal koalizio erregional moduan sailkatuko genituzke. Union Alavesa eta UPN alderdiak, berriz, espainiar nazioan jatorria duten alderdi periferiko *vasco* eta *navarroak* lirateke.

4. Ondorioak

Azken atal honetan, euskal alderdi-sistemaren berrikusketa bat proposatzen da. Irizpide berrietan oinarrituta, **hiru zuzenketa** azpimarratu nahi genituzke.


Lehen zuzenketa espainiar/frantziar alderdi nazionalistei dagokie. Proposatutako irizpide berri horiek aplikatuz gero, ordura arte alderdi estatal/autonomistatzat jotzen ziren alderdiei ezkutuan zuten DNI nazionala bistaritzen zaie. Alderdi nazionalista horiek askotarikoak dira. Euskal alderdi-sistemaren kasuan, bi *clivage*ren arabera banatzen dira: jatorriari dagokion lurralde-*clivagea* eta *clivage* soziala.

Bigarren zuzenketa euskal alderdi nazionalari dagokie. CISen eskeman, alderdi periferiko moduan sailkatzen dira alderdi horiek. Modu horretara formulatuta, badirudi botere politiko eta ekonomikoaren deszentralizazioa dela euskal alderdiak sortu izanaren arrazoia. Alabaina, auzia, funtsean, hori baino sakonagoa da. Euskal alderdi horiek komunitate nazional ezberdin bat dute jatorrian, euskal nazioa. Halaber, beren proiektu politikoa euskal nazioak hartzen duen barruti guztira zabaltzen da: iparrera eta hegora (Andaluziara ez: Tuterara bai). Horregatik, Euskal Estaturik izan ez arren, euskal alderdi nazional esaten zaie.

Hirugarren zuzenketa euskal alderdi/koalizio erregionalari dagokio. Alderdi horiek, euskal lurraldearen barruan, eremu jakin bateko euskaldunak ordezkatzeko antolatzen dira. Euskal nazioan dituzte sustraiak, baina beren eragite-gunea ez da nazio mailakoa. Sarritan, antolaketa erregional horiek halabeharrezko hautu batetik datoz. Nazio puskatua izatearen ondorio dira. Izan ere, bi estatutan banaturik egonda, oso zaila da hauteskunde guztietan lehiakorra den proiektu politiko komun bat izatea. Bi hiritartasun partekatzeak horrelako ondorioak ditu.

Laburbilduz, euskal alderdi-sistema ez da ardatz nazional/sozialaren arabera egituratzen den lau hankako mahai bat. Mahai bat da, baina hiru hanka ditu mahai horrek. Hanka horietako bakoitza nazio bat da, eta nazio bakoitzak dibisio ezberdinak ditu.

2. irudia. Euskal alderdi-sistema sailkatzeko proposatutako irizpideen aplikazio praktikoa.



Iturria: guk egina.

5. Etorkizunerako planteatzen den norabidea

Gure doktore-tesian euskararen eta boto abertzalearen arteko lotura ari gara aztertzen. Hasiara batean, Hego Euskal Herriko kasura mugatu dugu ikerketa. Izan ere, ez dugu baliabiderik Ipar Euskal Herriko kasua gehitzeko. Edonola ere, interes handikoa da aztertzea nolako lotura dagoen euskararen eta boto abertzalearen artean lurralde osoan. Horregatik, Hego Euskal Herrian egin dugun ikerketa hau Ipar Euskal Herrira zabaltzea da etorkizunerako planteatzen dugun norabidea.

6. Erreferentziak

Anduiza, E. eta Bosch, A. (2004). *Comportamiento político y electoral*. Ariel, Barcelona.

Azurmendi, J. (2017). *Hizkuntza, nazioa, Estatu*. Elkar, Donostia.

_____, (2018). *Beltzak, juduak eta beste euskaldun batzuk*. Elkar, Donostia.

Garmendia, H. (2015). Euskara eta bozka abertzalearen arteko lotura. *Jakin*, (208), 25-40.

Garmendia, H. eta Urteaga, E. (2017). "Euskara eta boto abertzalearen inguruko azterketa ekologikoa: 2016ko Eusko Legebiltzarreko hauteskundeak", in Iñaki Alegria, Ainhoa Latatu, Miren Josu Ormaetxebarria eta Patxi Salaberri (arg.), *II. Ikerketa nazioarteko kongresua*. UEU, 102-110.

Iztueta, I. (2016). Cultura vasca vs Euskal kultura (?). *Jakin*, 216,11-28.

Lipset, S. M. eta Rokkan, S. (1967). "Cleavage structures, party systems, and voter alignments: An introduction." in S. M. Lipset eta S. Rokkan (arg.), *Party systems and voter alignments*. Free Press. 1-64.

Llera, F. (2016). *Las elecciones autonómicas en el País Vasco*. CIS, Madrid.

Pallarés, F. (2014). *Elecciones autonómicas 2009-2012*. CIS, Madrid.

Retortillo, A. eta Leonisio, R. (2016). Competición y movilización diferencial. En *Las elecciones autonómicas en el País Vasco 1980-2012*, CIS, 175-191.

7. Eskerrak eta oharrak

Aurkeztu berri dugun ikerketa hau EHuko "Gizartea, Politika eta Kultura" doktore-programaren barruan egiten ari garen *Euskararen eta boto abertzalearen arteko lotura* doktore-tesiaren egokitzapen bat da. Halaber, EHuko euskara erretoreordetzak emandako ikerketa-beka baten laguntza du ikerketa honek.